KIROL PATRONATUAREN INSTALAZIOEN GARBIKETA ZERBITZURAKO BALDINTZA ORRI TEKNIKOAK.

0.- KONTRATUAREN EGITURA

Baldintza-agiri tekniko hauek hainbat eraikinen eta instalazioren garbiketa-lanak arautzen dituzte. Horiek, Bermeoko Udalaren Kirol Patronatuko eskumenekoak dira.

Horiek horrela, kontratazioa lote bakarra dauka:

ARENEKO UDAL KIROLDEGIA, JOSE DONEKO KANTXA ETA ARTZA FRONTOIA ERAIKINAK GARBITZEKO ZERBITZUA.

ARENEKO UDAL KIROLDEGIA, JOSE DONEKO KANTXA ETA ARTZA UDAL FRONTOIA ERAIKINEN GARBIKETA ZERBITZUA KONTRATATZEKO BALDINTZA TEKNIKOEN PLEGUA.

1.- HELBURUA

Areneko Kiroldegia, Jose Doneko kantxa eta Artza frontoia eraikinak garbitzeko zerbitzua da kontratu honen xedea.

2.- ZERBITZUAREN EDUKINA.

Esleipendun enpreseak burutu beharreko zerbitzua honakoa da bere funtsean: Artza udal frontoia, Jose Doneko kantxa eta Areneko udal kiroldegia eraikinak garbitzea, gela, egonleku, eskailera eta sarbide guztiak.

Artza udal frontoia

Frontoian ez dabez garbituko gela honeek: barra, barrarako sarbidea eta batzartzeko lokala.

CSV: 07E50007C2A300J7M7M2E3Z6R0

- Artza frontoia, egunero garbitu beharko da astelehenetik barikura goizeko 10ak baino lehenago; zapatu, domeka eta jai-egunetan 9ak baino lehen.
- Eguneroko mantentze garbiketaz gain, Artza udal frontoian hiru aldiz urtean (kristalak, garbiketa mekanikoa kantxa zein aldagelena, harmailetako aulkiak eta aldageletako alikatatuen) garbiketa sakona egingo da.

Jose Doneko kantxa

Kantxa eta aldagelak, arratsaldeko 15:00ak baino lehenago, garbitu beharko dira. Garbiketak urriaren 1etik maiatzaren 31ra arte egingo dira, Gabonak eta Aste Santuko oporrak kanpo (aste bi sasoi bakoitzean).

Egunero:

- Kantxan sastarrak batu, sastar ontziak hustu eta kantxan mopa sikua pasa.
- Aldagelak eta eskailerak garbitu eta txukundu

Hilero:

- Kantxa osotik lanbasa pasa

Areneko udal kiroldegia

Kiroldegian ez dabez garbituko gela honeek: barra eta barraren komunak, barra eta kiroldegia batzen dabezan pasabideak (garbiketa bereziak bai egingo dira pasabideetan). Taberna kudeatzen dituzten opor egunetan komunak eta pasabidea garbitu beharko dabe.

- Garbiketea egunean behin egin beharko da, gitxienez, garbitze eta kontserbazino baldintzak beti egoki mantentzeko.

- Garbiketa lanak egunero egingo dira goizeko 6etatik aurrera. Dana dala, Zuzendaritzeagaz adostasunera helduta, jentearentzat zabalik dagoan ordutegi barruan be egin leikez lan batzuk, haren ohiko funtzionamentuari kalterik egiten ez bajako. Enpresa lizitatzaileak aldagelen garbiketa bigarren aldi batean egunean zehar nahi izanez gero eskaini bere ordutegia proposatu beharko dau eskaintzan.

- Areneko udal kiroldegia herritarrentzat zabalik dagoan ordutegia:

CSV: 07E50007C2A300J7M7M2E3Z6R0

Irailetik ekainera:
Astelehenetik barikura: 8:00-21:30
Zapatu domekak eta jai egunak:
9:00-14:00 16:30-20:00 (Domeketan eta jai egunetan arratsaldez itxita)
Uztaila eta abuztua:
Astelehenetik barikura: 8:00-14:00 eta 17:00-21:30
Zapatu domekak eta jai egunak : 9:00-14:00

- Urtean 12 hilabetetan emongo da zerbitzua. Areneko kiroldegiko instalazinoak urtean hamar jaiegunetan, gutxi gorabehera aurreikusten da ixtea.

- Kiroldegi dana egongo da itxita irailaren 1etik 16ra barne. Egun bi edo bat lehenago (beharrizanaren arabera) irailaren irekiera baino lehenago garbitzaile bi egongo dira garbiketa orokorra egiten datorren lan taldearekin. Garbitzaileak oporrak al dabe hartu irailaren 1etik 16ra, eta uztaila eta abuztuan.

- Udalaren Kirol Patronatuak instalazinoak zabaldu eta ixteko ordutegiak aldatzeko ahalmena gordeten dau eta adjudikazinoduna egokitu egin beharko da aldakuntza horreetarako bere zerbitzua emoteko.

- Eskuz edo mekanikoki garbituko da, desinfektatuko edo tratamentu higienikoa emongo da. Adjudikazinodun enpreseak berak ipiniko dauz lanabesak eta beharrezkoak diran produktu egokiak. Udalaren Kirol Patronatuko zuzendaritzeak edonoiz eskatu leike produktu egokiagoak edo kalidade hobekoak erabiltea. Derrigorrezkoa izango da garbiketa mekanikoa egiteko makina kiroldegian izatea eguneroko erabilerarako eta kiroldegia igirita dagoen uneetan garbiketa egokia egin ahal izateko.

- Garbitasuna mantentzeko lanen barruan sartuko dira instalazinoetako elementu guztiak ondo eta era egokian funtzionatzeko beharrezkoak diran eginkizunak, zerbitzu honeengandik itxaroten dan higienea, apaindurea eta erosotasuna izan daien.

- Bai sarritasun taulak eta bai materialei buruzko neurri guztiak bete beharko dira zehatz, euren berezko iraupena luzetuz.

- Urtean hirutan, opor sasoietan (Aste Santuan, Gabonetan eta udan) eta, Patronatuaren Zuzendaritzeagaz aurretiaz adostuta, garbiketa bereziak egingo dira, tailerren gunea, makinen gelea, biltegiak, eraikinen kristaldegiak eta erabilten ez diran gelak be garbituko dira eta garbiketa mekanikoa egingo da hurrengo guneetan: igerilekuko solairuko behea egingo da aireztatutako gune osoan (igerilekuko zutabeak eta kristalerak barne, lirdinga, berdinik ez egiteko),

CSV: 07E50007C2A300J7M7M2E3Z6R0

kiroldegiko kantxa, fitness gimnasioa eta kiroldegiko sarrera biak, bereziki tabernaren kanpoko pasabidea, kanpokoa zein barrukoa. Era berean eta opor sasoietan, igerilekuko zoruan labantzea ekiditzeko egun ematen den produktu bera emango da, horniketa ere enpresaren kontura joango da.

Era berean, zerbitzuaren esleipendun enpresak honako higiene zerbitzuak betetzearen ardura hartuko du:

- Areneko kiroldegiko komunetan 19 higiene-edukinontzi ipini eta hileroko mantentzea egitea.
- Jaboia eta komuneko paperaren hornikuntza, edukinontzi barne, beharrizanaren arabera hiru eraikinetan.
- Areneko kiroldegian eskuetako papera, TORK edukinontzi (2) eta dagokion paper roiloak.
- Kiroldegiko sarrera bietan aterkiak zorroetan automatikoki sartzeko (2) makina ipini eta mantentzea.
- Kiroldegiko sarreran lohiaren kontrako alfonbra bat (1) ipini eta mantentzea.
- Inox materialaren garbiketa berezia, urtean behin (deskribatu eta zehaztu noiz eta nola).
- Koltxoneten desinfekzio berezia, urtean behin (deskribatu eta zehaztu noiz eta nola)
- Kirol material txikiaren (mankuernak, pesak, gomak,…) desinfekzio berezia urtean behin (deskribatu eta zehaztu noiz eta nola)
- Legionellaren aurkako tratamendua egingo da eraikin bietan –Areneko kiroldegia eta Artza frontoia- (lege araubidearekin bat).
- DDD tratamendua (urtero eta beharrezkoa denean jarraipena).

3.- PRESKRIPZIO TEKNIKOAK

Garbitasun zerbitzua plegu honen gaia diren eraikinetako lokal eta instalazio guztiak ondo garbitzeko eta kontserbetako behar-beharrezkoak diren lanak ondo beteta egingo da, leku hauek segurtasun, osasun eta higiene baldintza ezin hobeetan egon daitezen.

Garbitasun zerbitzua eraginkorra izan dadin kalitaterik handieneko produktuak edo materialak, makinak edo aplikatzaileak erabiliko dira momenturo. Sekula ere ez dira erabiliko produktu edo material korrosibo, atsitu edo labainkorrik, edo aplikatzean horrelako eraginik daukatenik. Edozelan ere, produktuek udal arduradunen oniritzia izan beharko dute, eta ez egokitzat jotzen dituzten produktuak galarazi egin ahal izango dituzte.

CSV: 07E50007C2A300J7M7M2E3Z6R0

Erratza pasatzean eta paperontziak garbitzean ez da airera hautsik edo usainik botako. Erratza pasatzean hautsa egongo dela aurreikusten bada, apur bat bustita pasako da erratza edo sikutan makinarekin.

Altzariak uneoro mantenduko dira garbi, informatika eta telefono ekipoak barne eta horrela dagokionean baita musika tresnak ere. Azalera osoan kenduko zaie hautsa airera hautsik altxatu gabe eta horretarako zapiak apur bat bustiko dira edo hautsaren aurkako produkturen batekin tratatuko dira.

Ordenagailuen teklatuak urtean hirutan garbituko dira. Garbiketa horretarako xurgagailua ahorik eta daukan indarrik txikienarekin erabiliko da eta belarrietarako erabiltzen diren makiltxoak alkoholetan bustita erabiliko dira, teklen arteko tarteak garbitzeko. Makiltxoetako kotoia apurtzen hasten denean aldatu egin beharko dira teklen azpian geratzea ekiditeko.

Ateak, markoak eta manparak altzaritzat hartuko dira eta, elementu horiek garbitzeko maiztasuna gorabehera, horietarako elementuetarako ezarritako tratamendu berbera izango dute, eta garbi egon beharko dira momenturo.

Azulejuak ezarritako gutxieneko maiztasunaren eta euren kokalekuaren arabera garbituko dira.

Kristalak eta azulejuak ezarritako gutxieneko maiztasunaren arabera garbituko dira, eta era guztietako leihoetan (zabaltzekoak, ardatz horizontaleko pibotagarriak, lerragarriak, ardatz aldagarrikoak, gillotina-leihoak, etab.) garbitasun beharrak laneko segurtasun eta osasun baldintza egokietan egin ahal izateko hartu beharreko neurriak hartuko dira.

Laneko programan zelan zabaldu eta zelan garbitu behar diren adieraziko da, baita hartu beharreko segurtasun neurriak ere. Kristal bat garbi dagoela ulertuko da garbitasun prozesua amaitu ostean kristalaren bi aldeak garbituta daudenean.

Komunak, komun-ontziak, konketak eta, oro har, aparatu sanitario guztiak egunero garbituko dira, eta germenak kentzen dituzten produktu desinfektatzaileak eta desodoranteak erabiliko dira, aparatu sanitarioetan, hormetan zein behegaineetan.

Komunetan komuneko papera ipiniko beharko da, eta paper bobinak eta gel dosifikagailuak daudenetan, ipini egin beharko dira egoerak eskatzen duenean edo amaituta daudenean.

Instalazioei dagokienez Kontrol Antibektorial Integratua ezartzeko zerbitzua ere egingo da, eta behar den lekuetan baita legionellaren kontrako tratamendu zerbitzua ere, betiere indarrean dagoen legearen arabera.

Baldintza-agiri honetan jasotako zehaztasun teknikoak eskatzen diren gutxieneko baldintzak dira, eta garbitasun maila uneoro handia izan dadin bideratuta daude.

EGIN BEHARREKO GARBIKETAREN EZAUGARRI NAGUSIAK

<u>Behegainak garbitzea</u>

CSV: 07E50007C2A300J7M7M2E3Z6R0

Instalazio edo zentro bateko lohiaren zati handi bat behegainean batzen denez, arreta bereziz zainduko da horien mantentzea. Hori dela-eta, behegainetarako tratamendu egoki bat ezartzen da, zirkunstantziek ahalbidetzen dutenean, geroko garbitasuna erraztu ahal izateko, higiene maila eta itxura estetiko-distiragarri handiagoa lortzeaz gain.

Eraikinen barrualdeetan eskobatze bustia egingo da, ohiko eskobatze lehorra ordezkatuz. Terrazoan ez dira soluzio alkalino edo azidoak erabili behar beronen azala hondatuko dutelako eta distira galdu. Orokorrean garbigarri neutroak erabiliko dira. Marmolezko behegainak dentsoagoak dira, hau da, porotsuagoak eta xurgatzaileagoak. Material azido edo alkalinoak ematea ekidingo da marmola kaltetzen dutelako eta itxura hila ematen diotelako. Jende asko igarotzen den beste leku batzuetan tratamendua sarriago egingo da, aldizka polimeroen emultsioak emanda (aurretik ondo garbituta).

Behegaina hauen eguneroko mantentzea eskobatze bustiarekin egitea errazagoa eta arinagoa da, ondo tratatuta badago. Hauek urez garbitzeak zikingune gogorrak errazago kendu ahal izatea dakar. Horretarako mopa eta garbigarri-desinfektatzailea erabiliko da.

Beste behegain gogor batzuk (granitoak, gresa eta abar) xurgatu egingo dira edo egunero eskobatuko dira bustita. Urez garbituko dira zikinguneak eta bestelako lohi hondakinak kentzeko. Hormigoizko behegainetan terrazo edo marmolezkoetan hartu beharreko neurri berak hartuko dira. Gresezko behegaineetan ez dira azidoak erabiliko junturetan (kare-esnea) kalteak eragiten dituztelako. Garbigarri urratzaileek behegaina hauek marratzen dituzte. Poro gutxiko materiala da, baina berariazko akabera aplika dakizkioke.

Oro har, behegainen mantentzerako ez dira erabiliko detergente eta bestelako produktu azidorik, azalerari kalterik ez eragiteko. Halaber, behegaina guztietan, lanbasa pasatu aurretik hautsa eta bestelako zikinkeri hondakinak kenduko dira moparekin. Ura ez da inoiz be bera bakarrik erabiliko, disoluzio detergente edo/eta desinfektatzaile bat gehituko zaio-eta beti. Ahalik eta lehorren utziko da beti, eta, arriskuak aurreikustearen ikuspegitik, kartel eta seinaleak erabiliko dira erabiltzaileek jakin dezaten instalazioetan garbiketa lanak egiten daudela, garbitzeko ordutegia eta leku horiek erabiltzekoa bat datozenean.

Behegaina sintetikoak, esaterako linoleuma, sintasola, PVCa eta eratorritakoak honako bi modu hauetan tratatu ahal izango dira: tresna birakorrarekin sakon garbitzea eta behegaina hauek babesteko eta distirarazteko emultsio bat ematea edo spray metodoa, eragiketa berean garbitu eta distirarazteko balio duen abiadura handiko tresna erabilita. Behegaina hauen eguneroko mantentzea eskobatze bustiarekin egingo da, eta zikingune gogorrak kentzeko lanbasaz garbituko da.

CSV: 07E50007C2A300J7M7M2E3Z6R0

Higadura handia eta askotan garbitzen den linoleoa oso porotsua da eta beti zigilatu behar da. Garbigarri alkalino gogorrek margo eta ehundurari eragiten diote eta beraz ekidin egin behar dira.

Baldosa asfaltikoa petrolioan oinarritzen den materiala da eta beraz ez dira erabili behar disolbagarri edo koipegabetzaile gogorrik, bigundu eta hondatu egingo luketelako.

Inoiz ez da erabiliko oinarri disolbagarria duten argizaririk (pasta argizari gehienak mota honetakoak izaten dira). Urdun oinarri emultsionatzailea duten argizari eta akaberak baino ez dira erabiliko.

Biniloa nahiko bizigabea da eta bere gainean isuri edo erabil daitezkeen materialek ez diote eragiten. Hala ere, ez da disolbagarri gogorrik erabili behar. Poro gutxiko materiala da, baina biniloa marratu egiten da eta distira arin galtzen du argizarizko geruza batekin edo akabera sintetiko batekin ez bada babesten.

Gomazko losetei, oinarri disolbagarridun argizari eta disolbagarriek arin eragiten diote, tela asfaltikoari eragiten dioten moduan. Inoiz ez da erabili beharko pastazko argizari gehienek duten moduko oinarri disolbatzailea duen disolbatzaile edo argizaririk. Material honetan erabilitako margoak ez dira oso egonkorrak garbigarri gogor alkalinoen aurrean.

Egur, parket, kortxo edo pergozko behegaineetan, oinarri disolbagarrizko (ez urezko) argizariak emango dira, azalera hauek babestu eta distira ematen dituztenak.Geroko mantentzea mopa lehorrarekin egingo da eta hautsa batzeko produktuekin. Pororik gabeko behegaineetan (lakatutako, bernizatutako edo plastifikatutako azalera) mopa erabiliko da apur bat bustitako zapi batekin.

Porodun behegainei kristalizatze tratamendua egingo zaie erraz garbitzeko behegaina leun bihurtzeko.

Plastikozko behegainetan garbitu daitezkeen emultsio auto-distiragarriak erabiliko dira, beharrezkoa denean, aurretik emandako argizari kopuruak horrela eskatzen duelako, argizari hori kentzeko tratamendua eginda.

Kasu bietan, tratamenduak produktu ez labainkorrak erabilita egingo dira.

Hasiera baten urteroko maiztasuna ezarriko da, beronen erabilera eta zahartzearen arabera.

Moketa eta alfonbrak garbitzea

Alfonbra, moketa, tapizeria eta antzekoei hautsa kentzeko xurgagailuak erabiliko dira. Era berean, orbanak daudenean orbanak kentzeko produktua erabiliko da, moketa edo

CSV: 07E50007C2A300J7M7M2E3Z6R0

alfonbraren ezaugarriak kontuan izanda. Urtean behin behintzat, shampomat metodoa erabilita edo injekzio estrakzio makina erabilita ehundun behegainak sakon garbituko dira.

Altzariak eta tresnak garbitzea

Altzariak dira geletako mahai, aulki, besaulki, estalki, armairu eta apalategi itxi zein irekiak, berogailu eta erradiadoreak, ekipo informatikoak, telefonoak, musika tresnak eta abar. Egunero hautsa kenduko zaie baldintza agirietan zehazten den tokietako altzariei eta dagoen altzari guztiei, baita apaingarri eta osagarriei ere. Ehundu bako zapiez gain, azalerak alperrik galduko ez dituzten hautsa batzeko garbigarriak eta osagai bakoitzari egokitutako materialerako egokiak diren produktu distiragarriak erabiliko dira eta horrela mahai, aulki, armairu, besaulki, lorontzi, lanpara, hautsontzi, apal, lanpas, arbeletako kutxatxo eta abarretan garbitasun egokia lortuko da.

Poro gabeko egurrezko azaleretan (lakatutako edo plastifikatutako azalerak) ehundu gabeko zapia erabiliko da garbigarri anionikoa eta ura duen disoluzio baxu batekin. Ondoren argizari natural edo begetalezko oinarria duen argizari likidozko edozein produktu. Porodun egurrezko azaleretan hautsa oso gutxi bustitako zapi batekin kenduko da.

Altzari eta osagarri guztiak kontu handiz zainduko dira, makinek edo garbitasunerako produktuek eragin dezaketen orbanak, kolpeak eta urratuak ekidinez.

Tresna informatikoen kanpoko aldea ura eta garbigarri anionikoz (disoluzio txikian) bustitako zapiarekin garbituko dira. Eurotatik inola ere ez da likido tantarik ere atera beharko.

Monitoreetako pantailak eta euron filtroak maiztasun jakin batekin garbituko dira eta egokiak diren produktu zehatzak erabilita.

Paperontzi eta hautsontziak egunero garbituko dira eta azken hauek urez garbituko dira hatsik ez egoteko. Era berean, poltsak birjarriko dira horrela behar diren edukiontzietan.

Telefonoak eta interkomunikatzaileak aldizka garbitu eta desinfektatuko dira ehundu gabeko zapiekin, garbigarri desinfektantearekin edo alkoholarekin.

Erradiadore, berogailu, su itzalgailu eta abarrak ere berdin garbituko dira baina urdun oinarria duten garbigarri neutroarekin.

Komunak, aldagelak, dutxak, garbigelak eta komun-ontziak garbitzea

CSV: 07E50007C2A300J7M7M2E3Z6R0

Behegainak, komun-ontziak, ispiluak, txorrotak eta osogarri kromatuak arretaz eta zorrotz garbituko dira, eta gero desinfektatu egingo dira, usain gozoa eta garbi usaina ematen duten desinfektatzaileekin. Ispiluak eta txorrotak sikatu egingo dira, eta azulejuak errepasatu egingo dira. Horretarako ehundu bako telazko zapiak erabiliko dira, disoluzio detergente desinfektatzaile batekin.

Behegainaren eskobatze hezea egingo da eta, gero, lanbasa pasatuko da balde bikoitzarekin eta disoluzio detergente desinfektatzailearekin.

Komun-ontziak desataskatu egingo dira, beharrezkoa balitz bitarteko mekaniko eta kimiko egokienak erabilita.

Era berean, dauden laguntza aparatuak eta elementuak ere produkturik egokienekin tratatuko dira, eta paperontziak hustuko dira.

Oro har, detergente neutroak edo behar den legezko alkalinoak erabiliko dira, kaltzifikazioak eragoztekoak eta ezaugarri moduan, batez ere, kontserbazio eraginak dituztenak. Ehunduko bako oihalezko zapiak erabiliko dira azalera esmaltatuak ez urratzeko.

Desinfektatzaile garbitzaile ez urratzaileak erabiliko dira, indar errematatzaile eta usaina kentzekoarekin, eta ez usainak estaltzekoa, ezpada ze kentzekoarekin, usainok eragiten dituzten germenak ezabatuta. Erabilitako garbitasun eta desinfekzio produktuak behar den moduan identifikatuta egongo dira, eta horien erregistroa eta orri teknikoak jaso beharko dira.

Ateak eta markoak garbitzea

Ateak eta markoak garbitzeko, kanpotik zein barrutik, ehundu bako oihalezko zapi ez urratzaileak erabiliko dira, oinarritzat ura daukan disoluzio garbitzailearekin, garbitu beharreko objektuak narriatu ez daitezen, hain zuzen ere.

Arrastoak, etab. egunero garbituko dira, itxura erabat dotorea izan dezaten.

Kristalak garbitzea

Bi aldeetatik garbituko eta sikatuko dira, barruko zein kanpoko kristalak. Detergente neutroak edo beirak garbitzekoak erabiliko dira, baita era honetako azalerak garbitzeko garbiketa tresnak ere: bustitzaileak, gomazko lan-eskuareak, arrasketak, makila edo kirten teleskopikoak, eskailerak, etab.

Langile espezializatuak erabiliko dira, eta egindako arrisku ebaluazioaren arabera istripuen prebentziorako behar diren neurriak edukiko dituzte.

CSV: 07E50007C2A300J7M7M2E3Z6R0

Ateetako kristalak edo kristal hutsezkoak diren ateak astean behin garbituko dira.

Metalak garbitzea

Ur bero eta xaboi urdun soluzio baten bustitako ehundu gabeko zapiarekin garbituko dira; zapi leun eta xurgatzaile batekin lehortuko dira. Inoiz ez da erabiliko altzairuzko belakirik, zapi latzik ezta soluzio urratzailerik ere.

Lohi gehiegi batu den tokiak, edo herdoila edo zikinguneak ikusten direnean ehuneko hamarreko nitrato sodikozko soluzio batekin bustitako zapi batekin azalera ondo garbituta kenduko dira, gero krema zuritzaile bat emango zaio eta horren ostean herdoil zikinguneak gogor igurtziko dira. Honen ondoren nahiko urekin garbituko da eta zapi garbi eta lehorrarekin lehortu.

Argi-puntuak garbitzea

Lanparetako, fluoreszenteetako, bonbilletako, ispilu-pantailak, etab. dagokien elementuekin (luma-eskuilak, zapiak, etab.) garbituko dira, aparaturik desmuntatu barik.

Eskudel eta barandak garbitzea

Eskudelak, ateetako heldulekuak, metalezkoak ez diren barandak eta orokorrean barruko elementu guztiak egun batean bai eta bestean ez garbituko dira, zapi leun batekin eta produktu egokienekin.

Patioak garbitzea (egoteko lekuek)

Kanpoko patioak garbitzea (kiroldegiko sarrera bien aurrean dagoen egoteko lekuek, buzoie dagoen ateen ondoko bankuaren inguruko egoteko lekue)

Patioak garbitzea patio horiek eskobatzea da. Behegaineko junturetan hasten diren landareak ere kendu egingo dira. Txiza dagoen ertzak mahuketako ura erabilita garbituko dira. Patioetako paperontziak hutsitu egingo dira eta paperontzietan plastikozko poltsa ipiniko dira.

Garbitzean sortutako hondakinak kentzea eta barruko paperontziak

Garbitasunaren eta paperontziak hustearen ondorioz sortutako hondakinak bide publikoan dagoen hiri-hondakin solidoak batzeko kontainerrera botako dira egunero. Ez dira estutuko eta behar den moduan manipulatuko dira, barruan isuri likidorik edo

CSV: 07E50007C2A300J7M7M2E3Z6R0

ebakiak eragiteko moduko objekturik balute ere. Poltsa berria ipiniko da paperontzian, ondo eutsita. Sastar-poltsa guztiak hurren dagoen kontainerrera botako dira.

Garbitasunerako produktuak erretiratu egingo dira egunero, beharrak amaitu eta segituan. Horretarako egokiak diren bideak erabiliko dira: poltsa, edukiontziak eta abar.

Aire girotuaren sistema garbitzea, balego

Indarrean dagoen legediaren arabera Kontrol Antibektorial Integratua Ezartzeko zerbitzua modu egokian egingo da, baita legionellaren kontrako tratamendua ere.

4.- PRESKRIPZIO ZEHATZAK. GUNEAK, LANAK ETA MAIZTASUNA ERAIKINAREN ARABERA

Areneko udal kiroldegia – Arene Auzoa z/g

EREMUA

Lanak eraikineko solairu guztietan egingo dira eta solairu bakoitzeko elementu guztietan: behegainak, hormak, ateak, leihoak, kristalak, komun-ontziak, erradiadoreak, mahaiak, aulkiak, apalategiak, ekipo informatikoak, lanparak, etab. Kanpoko egoteko lekuak ere (kiroldegiko sarrerak, buzoia dagoen sarrera eta alboko egoteko lekue) sartuta egongo dira.

EGIN BEHARREKO LAN GENERIKOAK

MAIZTASUNA	ERAGIKETA
Egunero	Behegainen garbiketa hezea
Egunero	Behegainetan lanbasa pasatu, beharrizanaren arabera
Egunero	Aldagelak, gelak, kantxa, komunak, igerilekuko hondartzak, takila gunea, botikina, gune hezea garbitu eta desinfektatu: komun-ontziak, dutxak, alikatatuak eta behegainak
Egunero	Altzairuetako hautsa kendu eta garbitu
Egunero	Bulegoak eta hainbat gela erabileraren arabera.
Egunero	Eskulekuak, barandak eta inguruak desinfektatu
Egunero	Komuneko papera, eskuetako papera, aterkinen plastikoak eta xaboia ipini adierazitako guneetan

CSV: 07E50007C2A300J7M7M2E3Z6R0

Egunero	Barruko kristaletako orbanak kendu
Egunero	Kanpoko egoteko lekuak garbitu
Egunero	Paperontziak hutsitu eta poltsak berriz ipini
Hamabostean behin	Mahai eta idazmahaietako azalera sakon garbitu
Astean behin	Su-itzalgailuetako hautsa kendu
Hamabostean behin	Kanpoko eta barruko ateak garbitu
Hilean behin	Alfonbrak eta moketak xurgatu
Lau hilean behin	Kanpoko kristalak garbitu barruko eta kanpoko aldetik
Hilean behin	Leihoetako kanpoko markoak garbitu
Hilean behin	Moketa eta alfonbrak garbitzea
Lau hilean behin	Luminarien, plafoien eta lanparen kanpoko aldea garbitu
Lau hilean behin	Sabaiak eta hormak garbitu
Lau hilean behin	-1 solairuko garbiketa berezia
Lau hilean behin	Behegainen tratamendua, igerilekuko hondartzetan ez labantzeko produktua barne.
Urtean behin	Inox materialaren garbiketa berezia, Koltxoneten eta Kirol material txikiaren (mankuernak, pesak, gomak,…) desinfekzio berezia,
Urtean behin	Kontrol Antibektorial Integratua ezartzea (1)
Urtean behin	Legionellaren (1) aurkako tratamendua

(1) Betiere dagokion lege araubidearekin bat.

Artza udal frontoia Nardiz tar Benantzio, z/g, :

Artza frontoia egunero garbitu beharko da. Garbiketarik ez da egingo ez barran ezta batzartzeko lokalean.

MAIZTASUNA	ERAGIKETA
Egunero	Behegainen garbiketa hezea, kantxa barne.
Egunero	Behegainetan lanbasa pasatu, beharrizanaren arabera
Egunero	Komunak garbitu eta desinfektatu: komun-ontziak, alikatatuak eta behegainak
Egunero	Paperontziak garbitu
Egunero	Eskudelak eta eskulekuak garbitu
Egunero	Komuneko papera eta xaboia ipini adierazitako eraikinetan

CSV: 07E50007C2A300J7M7M2E3Z6R0

Egunero	Paperontziak hutsitu eta poltsak berriz ipini
Hamabostean behin	Ateak garbitu
Lau hilean behin	Garbiketa sakona: kristalak, garbiketa mekanikoa kantxa zein aldagelana, harmailetako aulkiak eta aldageletako alikatatuenak.

Jose Doneko kantxa Zubiaur-Tar Kepa Kalea, 72

MAIZTASUNA	ERAGIKETA
Astelehenetik barikura	Kantxan mopa sikua pasa.
Astelehenetik barikura	Aldagela eta eskailerak garbitu: lanbasa pasatu
Astelehenetik barikura	Komunak garbitu eta desinfektatu: komun-ontziak, alikatatuak eta behegainak
Astelehenetik barikura	Komuneko papera eta xaboia ipini
Astelehenetik barikura	Paperontziak hutsitu eta poltsak berriz ipini
Hilean behin	Kantxa osotik lanbasa pasa

5.- GARBITZEKO SISTEMAK

Garbitzeko sistema estandarra

Garbitasun sistema iraunkortasun ikuspuntu batetik hartuta egin beharko da, ingurumen eragina txikitzeko beharrezkoak diren neurri guztiak hartuta.
Garbitzeko sistema estandarra erratz umela pasatzea eta lanbasa pasatzea da, ontzi bikoitzeko sistemarekin, hau da, ura beharrizanaren eta eremu motaren arabera aldatzea.

Sistema honekin hautsa birziklatzea eragozten da, eta horrela, germenak transmititzeko bide nagusienetako bat kentzen da.
Oro har, hautsa kontuan hartu beharko da, germenak eramateko bidea delako.

CSV: 07E50007C2A300J7M7M2E3Z6R0

Oso garrantzitsua da ontzi bikoitzaren sistema ondo erabiltzea, behegaina beti disoluzio detergente eta ur garbiarekin garbitzeko. Horrela ez dago detergente desinfektatzailea inaktibatzeko arriskurik.

Arau orokorra eremurik garbienetik zikinenera garbitzea izango da, eta goitik behera.
Garbitasunerako erabilitako materialak eta produktuak detergente eta desinfektatzailearekin entseatuko dira, arretaz, behar besteko denboraz eta komenigarrienak erabili eta gero.

Lantzean-lantzean paperontziak eta hondakinak batzeko eta botatzekoak ez diren bestelako ontziak garbituko dira, ez dezaten usain txarrik eragin.

Korridoreak eta atariak

Moparekin eskobatzea; airea mugitu gabe behegainean dauden partikulak batzeko aukera ematen du. Mopadun eskobatze umelak aurretik tratatuta dauden behegainetako distira nabarmentzea dakar, behegaina bakoitzerako egokiak diren produktuak emanda mopan bertan.

Sistema honekin hautsa birziklatzea eragozten da, eta horrela, germenak transmititzeko bide nagusienetako bat kentzen da.

Behegaina gogor eta porotsuak, esaterako marmola, terrazoa, baldosak eta abar, ur neutroa eta zigilatzaileekin tratatuko dira iragaitz bihurtzeko eta zikinkeriarik ez sartzeko. Gerora ez labaintzeko produktuekin distiraraziko dira.

Porotsuak ez diren behegainak hautsa leku batetik bestera mugitzea ekidingo duten produktuekin xurgatuko dira.

Goma, sintasol eta antzeko behegainak garbitu ostean urdun oinarridun zigilatzaileen bidez babestuko dira, euron bizitza luzatzeko eta behegainaren itxura indartzeko asmotan.

Eskobatze umelaekin eta distirarazte lehorrarekin mantenduko dira.
Erabiliko diren produktuak bakterizida eta desinfektante motakoak izango dira, higienizazio luzea ahalbidetzen dutenak eta erabiltzaileentzat kaltegarriak ez direnak.
Argizari eta zikinetarako desugertzaile likidoak eta babesteko eta distiragarri ipintzeko produktuak bateratuta.

CSV: 07E50007C2A300J7M7M2E3Z6R0

Behegainak garbitzeko honako hauek erabiliko dira:
Eskobatze umela
Mopadun lanbasa pasatzea ontzi bikoitzarekin eta garbigarri desinfektatzailedun soluzioarekin, arrisku handiko eta arrisku ertaineko tokietan.
Arrisku gutxiagoko guneetan ontzi bakarreko mopadun garbitzea.

Zuntza duten, moketa eta alfonbradun behegainak

Alfonbrak eta moketadun azalerak dira hauek. Alfonbra eta moketak sakonki xurgatuko dira behar den maiztasunarekin, eurotatik dabilen jende kopuruaren arabera eta ardura bereziarekin, behegaina hauetan hautsa egotea larria baita. Alfonbren ileetan sartzen den hautsak bizarra mozteko xaflen moduan aritzen da oinkadekin eta ile horiek azpi azpitik mozten ditu.

Xurgatzearekin moketa eta alfonbretako orbanak ikusi ahal izatea dakar eta garbitu ahal izatea, eta horrela zikinkeria ehun barruan sartzea ekidin dezakegu; xanpu neutro jakinak erabiltzen dira horretarako.

Aurretik ezarritako programaren arabera eta bertatik dabilen jende kopuruaren baldintza zehatzetara, higadura eta zikinkeria mailara egokituta, garbiketa sakonago eta osoago bati ekingo zaio dagokion xanpua edo konposatu berezi bat erabilita. Injekzio ateratze makina bat erabiltzeak xanpu alkalinoa ehunean sartzea dakar, eta ateratze horrekin produktua kendu ahal izango dugu eta berehala lehortzea lortuko dugu. Honek garbitzeaz gain, ehundun behegainei jatorrian zuten itxura ematea ahalbidetuko du koloreak indartuz.

Zikinguneak dauden bakoitzean eta erregulartasunez, kendu egingo dira eta ahalegina egingo da denbora askorik ez igarotzen horrela behegaineko ehun barruan sartzea ekiditeko.

Erabilitako produktuek inola ere ez diote eragingo ehunaren konposizioari, ez forman ezta kolorean ere.

Egurrezko behegainak

Eguneroko garbitasuna eskobatze bustiarekin egingo da, hautsa batzeko produktuz bustitako gasa batekin.

CSV: 07E50007C2A300J7M7M2E3Z6R0

Sakoneko garbitasuna beharrezkoa den guztietan egingo da, behegain mota hau hobeto zaintzeko oinarri disolbagarria duen argizaria erabilita.

Kristalak

Kristalari talde batek garbituko ditu kristalak dituen aldea, eta horretarako beharrezkoak direnak erabiliko ditu: bustitzekoak, eskuareak, hazkagailuak, xaflak, lehorgailuak, makila luzagarriak, artikulatutako besoak, larruzko gamuza eta abar. Horiez gain, garbigarri neutroa ere bai, produktu zehatzagoak erabiliko diren garbiketa berezietan izan ezik.

Lan hau egingo duen langile taldeak kristalak garbitzeko beharrezkoak diren segurtasun neurriak izango dituzte.

Markoak

Ardura berezia hartu beharko da markoen garbitze eta desinfekzioarekin, azalera horretarako egokia den garbigarriarekin orban eta zikinguneak kenduta.

Komunak, komun-ontziak eta aldagelak

Komunak: garbitasun sakona egingo da, behar beste bider, momentu guztietan baldintza higieniko egokietan egon dadin.

Komunak garbitzea egin beharreko lanik nagusienetakoa da, germen patogenoen foku garrantzitsua direlako. Hauxe izango da prozesua:

Sastar-ontziak hustea.
Detergente desinfektatzailea daukan zipriztingailuarekin azalera guztiak bustitzea.
Komun-ontziak, konketak, bainuontziak, dutxak, ispiluak, etab. garbitzea.
Azalera horizontalen eskobatze hezea.
Mopea pasatzea, ontzi bikoitzarekin.
Komuneko papera, paper-zati bustiak, apain-mahaiko gela, etab. ipintzea.
Komunak garbitzeko erabiliko den zapia eta altzariak garbitzeko erabiliko dena ez dira berbera izango, eta kolore-kode baten bidez desberdinduko dira.
Komuneko papera, botatzeko toallak edo eskuak sikatzeko papera, eskuetarako gela, etab. ipiniko beharko dira falta direnean.
Behegainean egunero pasatuko da lanbasa eta komunetako lozazko edo beirazko piezak ere sakonki garbituko dira.
Honako hauek erabiliko dira:

CSV: 07E50007C2A300J7M7M2E3Z6R0

Garbitzaile desinfektatzaile kloratua, bakteria, onddo eta birus mota guztiak kentzeko, eta azalerak zuritzeko baina kalterik eragin barik.
Zikintasun organikoa desegiten, kare eta oxido inkrustazioak kentzen, eta berehala eta luzarorako desinfektatzen duen garbitzaile berezia komun-ontzietarako.
Bioalkoholarekin aktibatutako multigarbigarri orokorra.

6.- MATERIALEN ZERRENDA. ERABILI BEHARREKO EKIPOAK ETA MAKINAK

Erabiliko diren garbitasunerako produktuak modu egokian identifikatuta eta etiketatuta egon beharko dira eta etiketa ekologikoa (Ekoetiketa) izan beharko dute edo ekodiseinatuta egon beharko dira, kreditatuko duen beharrezko dokumentazioa aurkeztuta, esaterako erabiliko den produktu bakoitzaren fitxa teknikoak eta segurtasunerako datuen fitxak.

Enpresa esleipendunak ipiniko ditu garbitasun lanak behar den moduan egiteko behar diren garbitzeko materialak eta produktuak. Garbitu beharreko instalazioetarako material eta produktu egokiak erabiliko dira, eta zerbitzu bakoitzerako aukeratu dena teknikoki justifikatu beharko da egokia dela, eta eskaintzan eskainitako material guztien espezifikazio teknikoak erantsi beharko dira.

Erabilitako produktuek ez diete, inola ere, garbitu beharreko materialei kalterik eragingo.

Sastar-poltsen, komuneko paperaren, aterkinak sartzeko plastikuak, eskuak sikatzeko paperaren eta eskuetarako gelaren hornidura ere sartuta egongo da.

ERABILI BEHARREKO BITARTEKOAK GORDETZEA ETA GARBITZEA

Garbitzeko materiala horretarako bereziki prestatutako gela berezietan gordeko da. Lokal edo unitate bakoitzeko garbitasun gela bat egongo da. Botatzekoa ez den materiala desinfektatu egingo da erabili eta gero, eguneko lan jarduna amaitu eta gero.
Materiala ez da sekula ere bustita gordeko, ondo sikatuta baino.

Eraikinean esleipendun enpresari utziko zaion garbitasunerako gela eta aldagela egunero garbituko da gainerako lekuak garbitzeko erabiltzen diren produktu desinfektatzaileekin. Esleipendunaren ardura da instalazio finkoa diren gauzak ondo eta garbi mantentzea.

CSV: 07E50007C2A300J7M7M2E3Z6R0

Zereginetarako erabilitako materiala eta makinak ondo garbituko eta desinfektatuko dira erabili eta gero.

MATERIALA MANTENTZEA

Garbitasun beharrak amaitu eta gero, tresnak garbitasun prozesu baten bidez garbituko dira, disoluzio detergente desinfektatzaile baten sartuta, gutxienez 5 minutuz. Ostean, garbiketa gelan utziko dira sikatzeko posizioan, berriz erabiliko direnean baldintza egokietan egon daitezen.

HONDAKINAK KUDEATZEA

Sortzen diren hondakinak behar den moduan kudeatu eta birziklatuko dira, dagokien edukiontzietan sartuta.

Garbitasun kontratuan hondakinak kudeatzeak honako hauek hartzen ditu barne:

- Eraikinean egoten den jendeak batzen dituzten hondakinak (gaika ala ez).
- Garbitasun zerbitzuak sortzen dituen hondakinak

Lehenengoei dagokienez, garbitasuneko langileek udal eraikinetan bereizita batzen diren hondakinak bermatu beharko dute eta dagokien tokietan modu egokian uztea. Hiriko hondakinen moduko hondakinak (hau da papera eta kartoia, plastikozko edo metalezko ontziak, beira, eta dagoen tokietan organikoa) hiriko bilketarako erabiltzen diren edukiontzietan botako dira.

Beste hondakin berezi batzuk (esaterako pilak, tonerrak, CDak, fluoreszenteak, mantentze lanetako hondarrak- pintura, disolbatzaileak eta abar) hiriko hondakin arruntetatik bereizita egon beharko dira eta baimendutako kudeatzaileek tratatu beharko dituzte. Hondakin mota hauek batu eta kudeatzea garbitasun kontratutik kanpo ezar daiteke, baina honetan sartu nahi bada, modu zehatz baten zehaztu beharko da.

Zerbitzuak bera sortzen dituenak, langileek eraikinean dauden hondakinen bereizketa bera egin beharko du eta arriskutsuak diren hondakinak baimendutako kudeatzaile baten bitartez tratatu beharko ditu (garbitasunerako produktu toxikoen botilak, sprayak eta abar).

Gaikako bilketari dagokionez, berezita jasotzen diren hondakinak modu egokian kudeatzen direla bermatzeko, baldintza orrietan argi adieraziko da:

- Hondakinen kudeaketa dela-eta, lan zehatzak.
- Gaika tratatutako hondakinak eta baita euren zirkuitua eta azken helburua ere.

CSV: 07E50007C2A300J7M7M2E3Z6R0

- Hondakin bakoitza zenbatero batzen den eta batzeko ordutegia eta esleipenduna arduratzen den edukiontziak jartzeaz, solairu bakoitzeko edo langile kopuruko edukiontzi kopurua.
- Langileen prestakuntzari dagokionez, esleipendunak trebakuntza eman beharko die langile guztiei bai bereak izan edo subrogatutakoak. Prestakuntzak laneko segurtasuna, ergonomia eta garbigarrian aurrean egoteari buruzko arloak (produktu hauek duten toxizitate eta arriskuagatik) beteko ditu, baita kontratuaren arlo zehatzak ere. Honek barne hartuko ditu:
    - Zerbitzuaren helburu berri eta printzipioei buruzko informazioa, ingurumen irizpideekin.
    - Erabiliko diren produktuak eta administrazioak kontratuz kanpo utzi edo erabilera gutxitzea nahi duena ingurumenean duten eraginagatik.
    - Garbitasun eta neurtzeko metodoak.
    - Laneko makinaria eta ekipoak.

Esleipendunak informazioa ematea errazteko eta kontratua zelan betetzen den hobeto kontrolatu ahal izateko garbitasun lanetarako, produktu kimikoak eta makinak erabiltzeko, komunikaziorako mekanismoetarako eta jarraipenerako ekintzetarako *protokolo eta prozedura* batzuk garatuko ditu. Prozedura hauek zerbitzua ematen den eraikinetan garbitasuneko langileen esku egon beharko dira.

Esleipendunak administrazioari sei hileroko edo urteroko *jarraipen txostena* emango dio eta bertan honako jasoko da (baldintzetan zehaztutakoaren arabera):

- Zerbitzuan erabilitako garbigarriak.
- Zenbat garbigarri eta bestelako garbitasunerako tresna erabili den.
- Zenbat produktu higieniko kontsumitu den (xaboia, komuneko papera eta eskuak lehortzeko papera).
- Baimendutako kudeatzaileen bitartez tratatutako hondakin berezien bolumena.
- Prestakuntza planak ezartzea.
- Kontratua betetzean egon daitekeen bestelako edozein gertakari.

Honek administrazioari lagundu egingo dio zerbitzua kontrolatzen, ingurumen adierazleak kalkulatu ahal izatea eragingo du eta ingurumen hobekuntzak egiteko neurri berriak aplikatzea ahalbidetuko du.

KONPROMISO OROKORRAK

CSV: 07E50007C2A300J7M7M2E3Z6R0

- Bermeoko Udalaren ingurumen politika zein den jakitea.
- Bermeoko Udalaren Kirol Patronatuko egoitzetan energia eta baliabide naturalak modu arduratsuan erabiltzeko konpromisoa lanean dauden bitartean.
- Euren lanlekua garbi eta txukun mantentzea eta gutxienez aurkitzen duten moduan uztea.
- Sortutako hondakinak bereiztea eta bere ardurapekoak diren hondakinak ondo kudeatzea.
- Bermeoko Udalaren Kirol Patronatuko eraikinetan bete beharreko ingurumen irizpideei buruz langileak informatzeko konpromisoa.
- Bermeoko Udaleko ingurumen arduradunek ingurumen jarduketei buruz emandako azalpenak betetzea.

KONPROMISO BEREZIAK

- Garbitasunerako produktuen fitxak ematea.
- Horretarako prestatutako bilketa puntuetan uztea papera eta kartoia.
- Udalaren edukiontzi horian uztea ontziak eta plastikoak.
- Hondakin organikoak udalaren edukiontzi berdean uztea.
- Argiak itzaltzea.

7.- LARRIALDIAK. BESTELAKO KONTINGENTZIAK

Ohiko lan prozedurak eta garbiketa edota desinfekzioak gauzatzeko produktuak ahalko dira aldatu unean uneko egoera sanitarioari egokitzeko.

Horrela, SARS-CoV-2 koronabirusak sortutako osasun egoeraren aurrean edo sor litezkeen bestelako larrialdi sanitarioaren aurrean, enpresa derrigortuta egongo da Aginte Sanitarioak finkatzen dituen lan-prozedurak hartzera eta hark finkatutako edo homologatutako produktuak erabiltzera, udal ordezkariaren baimenarekin bideratu beharko direnak.

Hemen adierazitakoak prezio edo kosteen aldaketak suposatuko balitu, administrazio baldintza orrietan jasotakoaren esanetara egongo da.

8.- LANGILEAK

CSV: 07E50007C2A300J7M7M2E3Z6R0

EZAUGARRI OROKORRAK

• Uniformeak eta identifikazioa

Enpresa esleipendunak behar den moduan uniformatuko ditu beharginak, eta beharginek uniforme hori behar den moduan daramatela zaindu beharko du.

Era berean, beharginek identifikazio txartela edo akreditazio pertsonala eraman beharko dute soinean zentroan ibili ahal izateko.

• Zerbitzu komunen erabilera

Enpresa esleipendunak eman beharreko jarraibideak emango die zentroak beharginei lanerako ematen dieten ur, argi eta argindarra behar den moduan erabili dezaten, eta kontsumo gehiegikeriarik ez egoteko.

• Hondamenak eta lapurretak

Langileek instalazioetako gauzetan eragindako kalteak, ardurabakokeriaz zein doloz direnak, kontratistak ordaindu beharko ditu.

Kontratista izango da, era berean, beharginek lapurtutako materialaren arduraduna, hareek lapurtu dutela frogatzen bada.

• Langileen babesa

Enpresa esleipenduneko beharginek zentroko eraikinetako eta instalazioetako kanpoko zein barruko kristalak garbitzeko behar diren norbera babesteko ekipoak izango dituzte dagokien segurtasun neurriak hartu ahal izateko, eta enpresa esleipendunaren ardura izango dira segurtasun neurriak ez betetzeagatik sor daitezkeen gorabeherak.

• Zigorren jakinarazpenak

Enpresa esleipendunak idatziz jakinaraziko dizkio zentroari bertan behar egiten duten beharginei egindako ohartarazpenak eta ipinitako zigorrak eta baita Bermeoko Udalaren Kirol Patronatuaren jabegokoa den lantokian gertatutako edozein istripuri buruz ere.

• Estaldura konpromisoa

Enpresa esleipendunak konpromisoa hartu du eskaintzan zehaztutako lanpostu kopurua estaltzeko uneoro; beraz, gaixotasunen edo istripuen, baimenen, oporren, zigorren ondoriozko bajen edo lana uztearen ondoriozko hutsuneak oso-osorik bete behar ditu, ordeztu beharreko langileen kategoria berbereko beharginekin.

• Ikuskapena

CSV: 07E50007C2A300J7M7M2E3Z6R0

Kontratatutako zerbitzuak Kirol Patronatuko zuzendariak ikuskatuko ditu uneoro, eta zuzendariak edozein unetan eta lekutan egin ahal izango ditu langileen zein materialei buruzko ikuskapenak. Ikuskapenotan arlo teknikoak, lan arlokoak zein juridikoak hartu ahal izango dira kontuan.

Esleipenduna, era berean, behartuta dago kontrata honetako zerbitzuei buruz zuzendariak eskatzen dizkion txostenak eta azterlanak prestatzen.
Horrez gain, egunero bete beharko da lan partea eta bertan data, tokia, egindako zerbitzua eta udalak jakin beharreko edozein arazo edo ohar adierazi beharko da. Lan parte hauek Kirol Patronatuan aurkeztu beharko dira.

SOLASKIDEA IZENDATZEA

Beharrak enpresa esleipenduneko arduradun batek zuzendu eta kontrolatuko ditu.
Enpresa esleipendunak arduradun bat izango du, zentroarekiko solaskidea eta ordezkaria izan dadin, eta Kirol Patronatuko zuzendariarekin egingo den lehenengo batzarrean aurkeztuko da. Lagun horrek honako zeregin hauek izango ditu:

- Garbitzaileen arduraduna izango da, lanak egitea eta baldintza-agiri honetako betekizunak gainbegiratu, kontrolatu eta garatzea.
- Lanak egiten diren bitartean garbitasunari buruz dauden kexak edo aldatu beharreko gorabeherak berariaz jasotzea, lanak behar den bezala egin daitezen.
- Langileen ordutegia eta ordutegi hori ondo betetzen dela kontrolatzea.

Garbitasunaren sektorean grebaren bat balego edo zentroko beharginak eurak egiten badute, esleipendunak udalaren ordezkari baten bidez bermatu egingo du zentroaren eta udalaren arteko harremana gatazkak irauten duen denborarako. Era berean, zentroen zuzendaritzari ezarri gura dituzten gutxieneko zerbitzuen berri emango dio.

ENPRESAKO BEHARGINAK

Enpresa esleipendunaren obligazioa izango da beharginen eskubideak ezartzea, lehiaketaren unean indarrean dauden hitzarmen kolektiboen bidez. Kirol Patronatuak ez du onartuko eta ez da beraren erantzukizuna izango hitzarmenotan onartuta ez dauden hobekuntza sozialak eta ekonomikoak, eta hori enpresa esleipendunaren erantzukizuna baino ez da izango.

CSV: 07E50007C2A300J7M7M2E3Z6R0

Oso osorik izango da kontratistaren ardura langileen lan baldintzak legeak dakarrenera eta indarrean dauden lan hitzarmenetara lotzea. Kirol Patronatua erabat salbuetsita egongo da kontratistaren eta haren beharginen arteko harremanen erantzukizunetik.
Kirol Patronatuak ez du izango ezelako zerikusi juridikorik ez laboralik, ezta bestelakorik ere, enpresa esleipenduneko langileekin, ez kontratuak irauten duen bitartean, ezta kontratua amaitu eta gero ere.

Esleipendunak zorrotz beteko ditu laneko arriskuen prebentzioko eta laneko osasuneko betebeharrak eta horretarako beharrezkoak diren koordinazio neurriak ezarriko ditu.

Kontratistaren ardura izango da beharginek janzkeran garbitasuna, txukuntasuna eta uniformetasuna jagotea, eta beharginak herritarrekiko edo Kirol Patronatuko langileekiko begirunez jardutea, baita zerbitzuak betetzean zarata handiegirik ez egitea ere.

Beharginak behar den moduan identifikatuta egon beharko dute zerbitzuen segurtasunerako, eta lehiatzaileek identifikazio sistemarik eraginkorrena proposatu beharko dute.
Esleipendunak ezin izango du aitzakia moduan beharginik ez daukala esan lanak eteteko edo atzeratzeko, izan ere, uneoro izan behar du behar beste behargin beharrok egiteko, eta horrek ez du eraginik edukiko kontratuaren prezioan.

BEHAR IZANGO DEN USTEZKO LANGILERIA

Kirol Patronatuak egindako irizpenean, gutxienez honako langile hauek beharko direla uste da:

Areneko udal kiroldegia: 3 Pertsona egunero 4 ordu eta 20 minutuz astelehenetik domekara. Guzti hau lau hilero edo urtero egiten diren lanez gain.

Artza udal frontoia: Pertsona 1 egunero, goizez, ordu bat eta erdi astelehenetik domekara. Guzti hau lau hilero edo urtero egiten diren lan bereziez gain.

Jose Doneko kantxa: Pertsona 1 egunero, goizez, ordu bat astelehenetik barikura. Hilean behin persona bat 2 ordu.

BEHARGIN ALDAKETAK

CSV: 07E50007C2A300J7M7M2E3Z6R0

Kontratua indarrean dagoen bitartean kontratuaren hasieran zeuden beharginen artean aldaketarik badago (erretiroagatik, heriotzagatik, borondatezko bajagatik, kaleratzeengatik, aldi baterako ezintasunagatik edo iraunkorragatik…) edo zerbitzuen beharrizanengatik aldaketaren bat badago, KPko zuzendariari jakinarazi beharko dio derrigor.

BEHARGINEN SEGURTASUNA ETA ERANTZUKIZUN ZIBILA

Esleipendunak behar den moduan aseguratuta eduki beharko ditu beraren beharginak, eta aurreikusitako beharrak egitean hirugarrenei eginiko balizko kalteak estaltzeko erantzukizun zibileko aseguruak egin beharko ditu.

PRESTAKUNTZA

Enpresa esleipendunaren ardura izango da beraren garbitzaileen prestakuntza, lanpostuaren jardun kualifikaturako prestakuntza teorikoa eta praktikoa hain zuzen ere, eta erabili beharreko materialen eta makinen gaineko ezagutza sakona izan beharko dute.

Udalaren kirol patronatuko zuzendaria

Orri oinean data eta sinadura

CSV: 07E50007C2A300J7M7M2E3Z6R0